



2008KO URRIAREN 15EKO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila bi mila eta zortziko urriaren hamaseian, arratsaldeko seietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi eta Iñaki Saldaña Herrero.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztzen da 2008ko irailaren 17an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2008ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 9 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, EHUN ETA BOST MILA EHUN ETA BERROGEITA BAT EURO ETA BI ZENTIMO (105.141,02 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 133 zbk.dun esped.: Zerbitzuan baja ematea 2008ko irailaren 2tik, egoitzan sartu delako.
- 08-011-006 zbk.dun esped.: Zerbitzua ematea astean 2 ordu. Onuradunaren ekarpena zebitzu kostuaren %35 izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 812 zbk.dun esped.: Alokairuko laguntzetatik baja ematea abuztutik aurrera, elkarbizitzako unitatean aldaketak egon direlako.
- 07-01-002 zbk.dun esped.: Mantenimenduko laguntzetatik baja ematea abuztutik aurrera, lanean hasi delako.
- 385 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimendu gastuak ordaintzeko hilean 45,92 € ematea abuztutik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %95 da.



- 133 zbk.dun esped.: Mantenimendu laguntzetatik baja ematea irailetik aurrera, egoitzan sartzeagatik.

Telealarma zerbitzua.-

- 133 zbk.dun esped.: Baja 2008ko irailaren 1ean egoitzan sartzeagatik.

Famili eskuhartze sozioedukatiboa.-

- 564 zbk.dun esped.: Esku-hartze sozioedukatibo familiarra martxan jartzea urritik aurrera. Urritik abendura bitarteko aurrekontua 2.272,50 € da.

IV.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK.-

- Jose Bolinagak, Txindoki Atletismo taldearen izenean "Josetxo Imazen oroimenezko IX. Lasterketa"ren antolaketan izandako gastuei aurre egiteko egindako dirulaguntza eskaeraren aurrean, eta Kirola eta Gazteria Batzordearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, zazpiehun eta berrogeita hamar (750 €) euroko dirulaguntza ematea erabakitzen du.

- Lazkao Antzar Pilota Kirol Elkartek San Mioletako eskolaume eta helduen esku pelota txapelketako antolaketan izandako gastuei aurre egiteko egindako dirulaguntza eskaeraren aurrean, eta Kirola eta Gazteria Batzordearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, hiruehun (300 €) euroko dirulaguntza ematea erabakitzen du.

- Joxe Arregi Imazek, uztaileko asteburuetan egiten den "Jose Mari Kerejetaren oroimenez"ko IV. Pala Txapelketaren antolaketako gastuei aurre egiteko egindako dirulaguntza eskaeraren aurrean, eta Kirola eta Gazteria Batzordearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, lauehun (400 €) euroko dirulaguntza ematea erabakitzen du.

V.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

- Lazkaoko Oin Arin dantza taldearen izenean, San Mioletako dantzari txiki egunaren antolaketan izandako gastuei aurre egiteko dirulaguntza eskaeraren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, aho batez, mila eta berrogeita bat (1.041 €) euroko dirulaguntza ematea erabakitzen du.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko zazpiak hogeit gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

